

2^{ème} Dimanche après Pâques C Traduction messe télévisée 25 4 2022

Chers frères et sœurs, trois fois Jésus salue les apôtres par ces mots « la paix soit avec vous ». A chaque messe Il vient nous offrir sa Parole, son Pain de Vie et aussi sa PAIX qui fait de nous des artisans de Paix.

Thomas aussi reçoit la paix du Christ. Les autres ont beau lui dire qu'Il est vivant, il a du mal à l'accepter. Il lui faut des preuves. Poser ses doigts dans ses plaies, sur son côté, par exemple. Il nous est proche car comme lui nous aussi nous avons besoin de signes pour croire en Jésus ressuscité. « *Bienheureux ceux qui croient sans avoir vu* » dit Jésus. Personne ne le voit, n'entend sa voix. Comme dit le chant basque *zer zorion* « *nos sens ne le sentent pas !* »

Alors aurait-on perdu la raison quand on affirme que Jésus est au milieu de nous ? Chacun d'entre nous pourrait témoigner quand, comment, où, il a rencontré le Christ. Jean nous dit qu'il a écrit les signes dans son évangile pour nous ouvrir à la foi. Comme le témoin de l'Apocalypse, nous aussi nous pourrions dire ; Jésus tu es là vivant au milieu de la prière de l'Eglise, tu es là dans la vie quotidienne, tu es là quand nous nous rassemblons autour de ta Parole. Chacune et chacun à son chemin de foi, et quand nous échangeons nos témoignages c'est l'Eglise de Jésus qui se forge.

Cet évangile fait un lien entre la Paix et les plaies du Christ. Son chemin de paix traverse la croix. Il a été torturé, condamné à mort en étant innocent, crucifié à mort. Et avant de mourir il a fait preuve d'une grande dignité, il a créé des liens avec un cœur dépourvu de toute haine, plein de miséricorde. Il a surtout sauvé l'ESPRIT Saint en le remettant dans les mains de son Père. Les plaies de Jésus sont devenues sources de paix. Paix blessée, crucifiée, mais paix ressuscitée, offerte à tous.

Aujourd'hui nous pouvons toucher les plaies du Christ en nous approchant de ceux qui souffrent. Il vient offrir sa Paix aux malades, aux victimes de la violence, aux prisonniers, aux migrants et réfugiés. Aujourd'hui sa Paix souffle dans les centres de soins, dans les soignants, les visiteurs de malades. Sa paix souffle sur le Pays basque et sur tous les peuples dans les personnes qui défendent les droits de l'Homme. Sa paix souffle quand les ennemis d'hier se mettent à dialoguer. Nous ressentons sa Paix vivifiante au milieu de ces chemins de croix, quand nous rompons les chaînes et que nous ouvrons des chemins de partage et de convivialité. La Paix du Christ souffle dans l'Eglise quand elle ouvre des chemins de dignité et de réconciliation avec les personnes qui ont été abusées sexuellement par des prêtres. Enfin sa Paix souffle dans nos familles quand nous nous unissons pour aider les enfants à grandir et les blessés de la vie à tenir bon.

MERCI à toi Jésus car la Paix que tu nous offres n'est pas vide, morte, mais elle est comme une source unique d'espérance qui jaillit au milieu de nos plaies et de nos croix. A nous rassemblés à cette messe, à vous qui nous suivez par la télé, Jésus nous dit : « *recevez l'Esprit Saint. La Paix soit avec vous !* » Amen

Bazko 2. ondoko igandea C 2022

Haurride maiteak,

Hiru aldiz Jesusek apostoluak agurtzen ditu erranez «*bakea zuekin!*» Meza guzietan Jesusek eskaintzen dauzku bere Hitzza, bere Ogi bizia bai eta ere bere Bakea, bakeegile egiten gaituena.

Tomasi ere bai Jesusek bere bakea dio eskaintzen. Gostatzen zaio sinestea Jesus bizi dela. Taldeko kideek ari dira kondatzen nola Jesus agertu zitzairen. Bainan Tomasek frogak nahi ditu eta frogarik andiena ditake zaurietan bere erhiak pausatzea. Gustokoa dugu Tomas zeren bera bezala guk ere behar ditugu seinaleak, ezaugarriak Jesus berpiztuan sinesteko. « *Dohatsu ikusi gabe sinesten dutenak* » dio Jesusek. Jesus ez da fisikoki ageri, ez dugu ikusten, bere boza ez dugu entzuten. Kantuak dion bezala « *gorputzeko zentzuek ez dute senditzen.* »

Eroak ote gira, burua galdu ote dugu sinesten dugulakotz Jesus gure erdian dela? Joanesek derauku seinaleak idatziak izan dituela gure sinestea finkatzeako. Gutarik bakoitzak ager lezake nun, noiz, nola kausitu izan duen Jesus bere bizian. Apokalipsako lekukoa bezala, bihotz bero batekin, aitor dezakegu: Jesus hor zira bizirik! Bizirik Elizaren otoitz aldietan, hor zira eguneroko bizian, hor zira elgarrekin bilduak garelarik zure Hitzaren entzuteko. Bakoitzak badu bere sinestebide berezia eta gure lekukotasunak elgarrekin lotzen ditugularik sortzen da Jesusen Eliza, Jesusek bermatzen duen batasuna.

Ebanjelio hunek lotura bat du egiten Jesusen bakea eta bere zaurien artean. Jesusen bake bideak gurutzea du zeharkatzen. Izan da torturatua, hobenik gabe heriotzera kondenatua, Biktima bezala kurutzean itzatua. Hil aintzin erakusti izan du duintasun paregabe bat; herragabeko bihotzarekin, haurridetasuna sortuz. Ororen gainetik salbatu du Izpiritua bere Aitaren eskutan emanaz.

Jesusen zauriak bake iturri dira bilakatu! Bake zauritua, itzatua, bainan bake berpiztua, sendatua, bake kristotua, deneri eskainia. Gaur Jesusen zauriak hunki ditzazkegu sofritzen dutenetaz urbiltzen garelarik! Jesusek eskaintzen du bere Bakea erieri, gogorkerien biktima guzieren, preso direneri, gerlak edo injustiziak zapaltzen dituzteneri, etorkin eta iheslariei, oinazetan eta atsegabetan direnei.

Gaur Jesusen Bakea ari da ufatzen ospitaletan, erizainetan, eriak bisitatzeko ditugularik. Jesusen bakea ari da ufatzen Euskal Herrian eta herri guzietan giza eskubideen alde xutitzen direnetan.

Jesusen Bakea ari da ufatzen lehen etsai zirenetan, elgar mintzatzen direlarik. Jesusen bakearen ufada bizigarria dugu senditzen gurutze bide hoietan, kateak hausten ditugularik haurridetasun eta elgartasun bideak sortzeko.

Jesusen Bakea ari da ufatzen Elizan, apezen ganik haur bortxatuak izan direnekin, zuzentasun eta duintasun bideak idekitzen dituelarik. Jesusen bakea ari da ere ufatzen gure etxe barnetan bat egiten dugularik ttikiak eta gaizki direnak altxa-arazteko.

ESKERRAK zuri Jesus, eskaintzen daukuzun bakea ez delakotz bake huts bat baizik eta malkoen eta zaurien artetik jalgi zaukun esperantzaren iturri paregabe bat. Telebixtaren bidez meza hau segitzen duzutenei, Meza huntan bilduak gaudeneri, zuk

deraukuzu « *Har azue ene Izpiritua ! Bakea zuekin* ». Amen